

Enpresaren ekonomia

- BATXILERGOA
- LANDIBE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKANTASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

A AUKERA

A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Irakur ezazu testu hau, eta erantzun iezaiezu galderari:

ALTRAN INDIZEAK EUROPAR BATASUNEN HERRIALDEEN BERRIKUNTZA-AHALMENA NEURTZEKO BALIO DU.

Berrikuntza-potentzialaren Altran indizeak Europar Batasuneko herrialdeen **berrikuntza-ahalmena** neurtzen du metodologia berritzaile baten bidez. Euskadirako azpiindizeak hau neurtzen du: goi-mailako hezkuntza duen populazio aktiboa, goi-teknologiako zerbitzuetako enplegua, enpresa-sektoreko ikertzaileak, banda zabaleko konexioa duten enpresak eta I+G-ko inbertsioa BPGarekiko. Hauek dira emaitzak:

I+G-ko inbertsioei dagokienez, Euskadik % 7,7 handitu zuen I+G-n egindako inbertsioa, BPGaren ehunekoa kontuan izanik: 2012tik 2013ra, % 1,95etik % 2,10era pasatu zen.

Goi-mailako hezkuntza duen populazio aktiboaren ehunekoa % 45 da. Datu horrek adierazle horren lehen postua eman dio, Europar Batasuneko batezbestekoa (% 26,9) gainditu baitu.

Hala, Euskadiren berrikuntza-ahalmena haren **giza kapitalari** zor zaio, haren populazio aktiboak goi-mailako kalifikazioa duelako, eta haren enpresa-sektore pribatuak berrikuntzaren alde egindako apustu handiari, I+G-ko inbertsioa handitu duelako.

Adierazle horiek **Europako ekonomia aitzindarien** erreferentzia-balioetatik gertu kokatzen dute Euskadi.

Galdekizunak:

- Azaldu ezazu testuan azpimarratutako terminoen esanahia.
- Adieraz ezazu zein diren Euskadiren berrikuntza-potentzian eragiten duten faktorerik garrantzitsuenak.

A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Ekonomiako ikasleek dirua bildu nahi dute euren ikasketa-bidaiarako. Horretarako, aldi baterako negozio bat ireki dute, ekainean errenta-aitorpenak egiteko. Lokal bat alokatu dute 400 euroan, eta zergatan 100 euro ordaindu dizkiote Udalarari lizentzia dela eta. Aitorpenak egingo dituen ikasleari 5 € ordainduko diote aitorpen bakoitzeko, eta bezeroei 30 € kobratuko diete aitorpen bakoitzeko.



Kalkula itzazu hauek:

- Zenbat aitortpen egin beharko dituzte mozkinak izaten hasteko?
- Zein izango da emaitza ekonomikoa 100 aitortpen eginez gero?
- Azaldu ezazu grafikoki errentagarritasunaren ataria.

A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Bideoak eta CDak egiten dituen MUSIC SA enpresak SOINU SA enpresaren partaidetza bat erosi nahi du. SOINU SA enpresak bideo musikalak grabatzen ditu. Azken enpresa horrek 35 langile ditu, egunean 7 orduz eta urtean 300 egunez lan egiten dutenak; eta urtean, batez beste, 45.250 bideo ekoizten dituzte.

MUSIC SA enpresako zuzendaritzak uste du erosketak interesgarria izango dela baldin eta SOINU SAren produktibitatea sektorearen batezbestekoaren gainetik badago; eta sektoreko produktibitatea, orduko eta langileko, 1 bideo da.

Datu horiekin, azaldu ezazu enpresa erosteko asmoa bideragarria den ala ez, eta egin itzazu egoki deritzozun iradokizunak enpresaren produktibitatea hobetzeko.

A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu

Enpresa batek kutxak saltzen ditu, eta mugimendu hauek erregistratu ditu maiatzean biltegian:

05/01.- Hasierako izakinak:	2.000 unitate 4 €/u-an.
05/06.- Erosketak X hornitzaileari:	2.000 unitate 5 €/u-an.
05/08.- Erosketak Y hornitzaileari:	4.000 unitate 5,5 €/u-an.
05/11.- Salmentak A bezeroari:	3.000 unitate 6 €/u-an.
05/17.- Erosketak Z hornitzaileari:	5.000 unitate 5,8 €/u-an.
05/24.- Salmentak A bezeroari:	6.000 unitate 7 €/u-an.

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu maiatzeko biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) balorazio-metodoak erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa.

A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu

Erantzun iezaiezu galdera hauei:

- Aipa ezazu maniobra-funtsa kalkulatzeko formula bat, eta irudika ezazu grafikoki finantza-orekaren egoeran.
- Adieraz ezazu zer alde dagoen handizkako banatzailearen eta txikizkako banatzailearen artean, eta jar ezazu adibide bana.



B AUKERA

B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

2012. urtean, enpresa batek 1.500.000 pieza ekoitzi zituen. Horretarako, 9 langile zituen. Langile bakoitzak, urtean, 1.610 orduz lan egin zuen. 2013. urtean, 12 langilarekin, ekoizpena 1.850.000 unitatera iritsi zen, langile bakoitzak urtean 1.600 orduz lan eginda.

- Kalkula ezazu bi urte horietako bakoitzean zein izan den produktibitatea lan egindako ordu bakoitzeko.
- Kalkula ezazu 2013. urteko lanaren produktibitatearen aldaketa-tasa 2012. urtekoarekiko.
- Komenta itzazu emaitzak.

B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Egunkariak saltzeko kiosko baten jabeak, bere jarduera zabaldu nahian, bi aukera ditu eskuartean:

Hau da 1. aukera: labe bat eta beharrezko tresneria erosi, eta bertan egindako jakiak saltzen hastea. Horretarako, hasieran, 8.000 € ordaindu behar lituzke, eta hurrengo hiru urteetan, 3.000 €, 4.000 € eta 5.000 €-ko kutxa-fluxuak lortuko lituzke, hurrenez hurren. Hirugarren urtea amaituta, labea 1.000 €-an salduko luke.

Hau da 2. aukera: izozkiak egiteko makina bat eta beharrezko tresneria erosi, eta izozkiak saltzen hastea. Horretarako, hasieran 10.000 € ordaindu behar lituzke, eta hurrengo hiru urteetan, ondorio hauek izango lituzke:

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
Salmenta-prezioa unitateko	2 €	2,5 €	3 €
Saldutako unitateak	3.500	4.000	5.000
Kostu osoak	4.000 €	5.000 €	7.000 €

Kontuan hartuta inflazio-tasa % 3 izango dela urtez urte eta lortu nahi den errentagarritasun minimoa % 6 dela:

- Kalkula ezazu aukera bakoitzaren berreskuratze-epea edo pay-back delakoa.
- Kalkula ezazu, ezarritako baldintza horietan, aukera bakoitzaren balio eguneratu garbia (BEG).
- Zer gomendatuko zenioke kioskoaren jabeari? Jakiak ala izozkiak saltzen hastea? Zergatik?
- Bi irizpideetako zein iruditzen zaizu onena (balio eguneratu garbia ala berreskuratze-epea)? Zergatik?



B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu.

SUKALDARI S.A. enpresak sukaldeko altzarien salerosketan dihardu, eta 2013. urteko ekitaldiaren bukaeran bere ondarearen datuak aurkeztu ditu:

- Makineria	67.000 €
- Altzariak	103.500 €
- Enpresaren aldeko saldoa bankuan duen kontu korrontean	9.000 €
- 4 urteko epean itzultzeko mailegua	135.000 €
- Informatika-ekipoak	8.100 €
- Banaketarako furgoneta	22.000 €
- Pabiloiaren balioa	90.500 €
- Epe luzerako zorrak ibilgetu-hornitzaileekin	14.400 €
- Kobratzeko dauden fakturak	22.500 €
- Ordaindu gabeko fakturak	25.200 €
- Saltzeko prest dauden armairuak	45.000 €
- Gizarte Segurantza hartzekoduna	3.600 €
- Bezeroei onartutako truke-letrak	34.200 €
- Bulegoko kutxa	6.300 €
- Hornitzaileek onartutako letrak	18.900 €
- BEZaren likidazioagatik Ogasunari zor zaiona	4.500 €
- Kapital soziala	148.500 €
- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	40.000 €
- Legezko erreserba	?????????

Datu horietatik abiatuta, hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko, eta emaitzak aztertzea
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Ibilgetua
 - Zorpetze osoa
 - Altxortegia
 - Likidezia
 - Bermea
 - Finantza-autonomia

B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu.

Irakur ezazu testu hau, eta azaldu ezazu testuan agertzen diren hitzen esanahia.

"Konpainiak 500 lanpostu zuzen eta beste 5.000 zeharkako lanpostu sortu ditu. Enpresaren kapitala, orain, 413 milioi euro da.

1998. urtean, sortu zenean, 24.541 milioi euroko fakturazioa izan zuen, eta 5.926 milioi euroko galerak. 2007. urtean, aldiz, 336.500 milioi euroko fakturazioa eta 33.000 milioi euroko irabaziak izan ditu".

FICHA DE ALMACÉN

MÉTODO DE VALORACIÓN:

ARTÍCULO:

FECHA	DESCRIPCIÓN	ENTRADAS			SALIDAS			EXISTENCIAS		
		Cantidad	Precio	Valor	Cantidad	Precio	Valor	Cantidad	Precio	Valor

VALOR DE LAS EXISTENCIAS:
Nº UNIDADES:

BILTEGI-FITXA

IRIZPIDEA:

ARTIKULUA:

DATA	DESKRIPZIOA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:
UNITATE KOPURUA:



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ENPRESAREN EKONOMIA

Ikasleari ariketa bakoitzean bi aukera ematen zaizkio, A eta B. Bi aukerek 4 edo 5 galdera dituzte. Galderak balioesteko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAN ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute zuzentzaileek.

A AUKERA

Bi aukeretan lehenak ekonomiako dibulgazio-testu bat du, komunikabide sozialetatik jasotakoa, eta edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea eskatzen da. Galderetan, termino batzuen esanahia aurkeztutako testuaren testuinguruan azaltzea eskatzen da, edo, bestela, testuari lotutako argudio ekonomikoren bat azaltzea. Galdera honek 2 puntu edo **2,5 puntu** balio du, gehienez, goiburuan adierazitakoaren arabera. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Lehen aukerak beste hiru galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera. Teknika egokiak menderatzea nahiz lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko da.

Azkenik, lehen aukeran baliteke galdera bat egotea ekonomia-terminoen ezagutza eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzeko. Galdera horrek **1,5 puntu** balio du, gehienez. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

B AUKERA

Bigarren aukerak balantze-analisi bat du. Galdera honek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea, eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desorekak eta desdoitzeak gertatuko balira hautemateko gai izatea. Batez ere, ikaslea emaitzen esanahi ekonomikoa ulertzeko eta interpretatzeko gai izatea balioetsiko da. Akats aritmetikoen kasuan, lehentasuna eman behar zaio ikaslearen arrazoibidearen ebaluazioari, eta ez zenbakizko emaitzaren zuzentasunari.

Bigarren aukerak beste bi galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, bigarren aukerako galdera batean, ekonomia-terminoak ezagutzea eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Galdera horrek gehienez **1,5 puntuko** balorazioa du. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: gai honetarako ezarritako gaitasunak ikasleak eskuratuak izatea, enpresaren ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratze-maila adierazi behar du kalifikazioak.

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie hauei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea —eskemak, marrazkiak, grafikoak, eta abar—, eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango du ikasleak. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehienezko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarritzko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoen analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoen arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.